



Euskaraldiak lokala zabaldu du Durangoren bihotzean

Ostegun iluntzetan eta larunbat eguerdietan egongo da zabalik: informazioa eta parte hartzeko aukera izango duzue

Euskaraldia gero eta hurrago dago, eta Berbaro buru-belarri dabil Durangoko Euskaraldiko batzordean. Orain lokala ere badugu alde zaharrean; inaugurazio ekitaldi xume baina jendetsua egin genuen urriaren 17an, pintxo eta musikaz lagunduta. 60 lagun aurrean, orain arte egindakoaren balantzea eta egiteko dagoen lana azaldu genuen.

Lokala Artekale 14an dago, lehen Hitz liburu-denda zegoen lekuan. Ostegunetan (18:00-20:30) eta larunbatetan (12:00-14:30) egongo da zabalik. Hiru funtzio edukiko ditu: informazioa jasotzeko gune erreferentziala izatea, izena emateko lekua izatea eta txapa jasotzen joateko lekua izatea. Gogoratu izena internetez eta lokalean eman ahal dela, eta txaparen bila beranduago pasa beharko zaretela lokaletik, Euskaraldia hasi aurreko asteetan.

Ateak zabal-zabalik berbarotarrantzat

Aurrera begira, Ahobizi eta Belarriprest izateko tailerrak antolatuko ditugu lokalean. Euskaraldiko rola betetzerako orduan zalantzak izango dituztela uste duten guztiei daude zabalik, eta bertan 11 egunez zelan jokatu azalduko da. Ahobizien tailerra azaroaren 5ean izango da, eta Belarriprestena 12an, biak 19:00etan.

Berbarotar guztiok animatu gura zaituztegu Euskaraldian parte hartzera. Edozertan lagundu gura baduzue lokalera hurre-ratu ahal zarete, edo bestela, aste barruko edozein egunetan Berbaroko bulegotik pasa, badakizue non gauden! Gainera, Durangoko komertzioetatik pasatzeko asmoa daukagu, bertan Euskaraldia merkataria eta tabernarien artean zabaltzeko. Lan horretan lagundu gura baduzue, laguntza hori ongi-etorria izango da ahalik komertzio gehienetara heltzeko.

Martxotik martxan!

Durangoko Euskaraldiko taldea martxoan hasi zen martxan, eta ordutik hainbat lan egin dugu: herriko eragileekin hartu-emanen ipini gara Euskaraldia zer den azaltzeko; Asier Lafuentek Arabako Lautadako esperientzia kontatu zigun hitzaldian; eskolen artean lantaldea sortu da Euskaraldiaz aritzeko...

Jaietan ere Euskaraldia topera aritu da. Hasteko, txosnaguneko txupinazoa botatzeko ohorea eduki genuen, eta jai-giro ezin hobean, jendetzaren aurrean azaldu genuen zer ekarriko duen Euskaraldiak. Gainera, jaietarako propio sortutako Euskaraldiko kanta ere aurkeztu genuen; Unai Iturriagak idatzi du letra, eta Gora Etorri taldeak musikatu du. Horrez gain, sukalki txapelketan eta txosnetako paella txapelketan mahaiz mahai informazioa banatzen aritu ginen, eta fotocall erraldoi bat ere atera genuen jendeak Euskaraldiari atxikimendua erakusteko.

11 egun, 11 aholku

11 egun, 11 aholku



AHOBIZI BAZARA...

1. Lehen hitza euskaraz, argi eta goxo
2. Ahobizi eta Belarriprestekin, euskaraz!
3. Ahal bezain natural egin euskaraz, parekoak ateak itxi nahi izan arte.
4. Belarriprestak zaindu. Batzuk ahalegin berezia egiten ari dira.
5. Elkarrizketa elebidunak ohitura kontua dira.
6. Hitz errazak aukeratu, astiro berba egin.
7. Erdarara pasatzen bazara, hasi euskaraz berriro; ez da ezer pasatzen.
8. Errazenetik hasi: ohiturak norekin aldatu ahal dituzun pentsatu eta berekin berba egin.
9. Elkarrekin komunikatzea da kontua.
10. Eroso sentitzea da garrantzitsuena.
11. Gero eta hobeto egingo dugu!



BELARRIPREST BAZARA...

1. Euskara hitz egitera gonbidatu.
2. Lehen hitza euskaraz eginez, euskaraz jarraitzeko aukera emango duzu.
3. Zure mugez lasai hitz egin. Konplizeak bilatu.
4. Eskatu errepikatze edo astiro berba egiteko. Ondo hartuko dute.
5. Erdaraz erantzun dezakezu, lasai.
6. Zalantzarik baduzu, galdetu.
7. Elkarrizketa asko laburrak dira, gehiena ulertuko duzu.
8. Errazenetik hasi: ohiturak norekin aldatu ahal dituzun pentsatu eta berekin berba egin.
9. Euskarazko komunikabideak kontsumitu. Gero eta euskara gehiago entzun, hobeto!
10. Eroso sentitzea da garrantzitsuena.
11. Gero eta hobeto egingo dugu!

“Euskarak gaur egun gaztelelaniak duen estatus bera behar du Durangon”

Zuzendari berria dugu Berbaron: Markel Sanchez Zelaiak lekukoa hartu dio Maite Berriozabal Berrizbeitiari. Irailetik hona gelditu ere ez da egin.



Laster hilabete bi gurean... Oraindik lur hartzen, ala dagoeneko guztiz murgilduta zaude?

Lurreratzea apur bat arraroa egin zitzaidan hasieran, bertara ailegatu eta ez nuelako zer egin esango zidan inor (kudeatzaile postuan normala denez). Berbaroren funtzionamendua ikasten pasa nituen lehen asteak, baina orain kokatuago nagoela esan dezaket, martxa hartuta jada.

Durangarra izanda, lehenagotik ere ezagutu duzu Berbaro. Barruan sorpresarik hartu duzu?

Bai, egia esateko kanpotik ikusita ez zara konturatzen zenbat lan egiten den eta zenbat proiektu egiten dituen Berbarok. Bestalde, uste nuen lankideak jatorrak izango zirela, baina ez... OSO jatorrak dira.

Esku artean ditugun proiektuen artean, zeintzuk dira zuretzat motibagarrienak?

Ni inplikatuena nagoen proiektua Euskaraldia da. Proiektu interesgarria dela uste dut, Euskal Herri mailan sekula egin bako ariketa delako, eta aukera asko zabaldu ditzakeelako. Dena dela, Berbarok baditu hainbat proiektu propio, esate baterako KLAKE edo Haur Literatura Aretoa, eta oso interesgarriak direla uste dut.

Datorren urtean 30 urte beteko ditu Berbarok. Zelan imajinatzen duzu urte biribila?

Interesgarria litzateke urteurrenaren harira azken 30 urteetako errebaso txiki bat egitea, ez atzera begira egoteko, baizik eta Berbarok etorkizunean zein ibilbide eta funtzio izan behar dituen eztabaidatzeko. Urteurrena aitzakia polita izan daiteke honen inguruko hausnarketa kolektibo bat emateko, batez ere azken 30 urteetan Berbaroko kide izen direnen artean.

Durangon zelako osasuna dauka euskarak?

Durangon euskara makalik dago, aspalditik gainera. Berbaroren lana da sendagarri izatea, ibuprofeno lana, berau hartu eta euskarak egunari aurre egin diezaion. Dena dela, ezin dugu ahaztu euskara ez gaixotzeko baldintzak aldatu behar direla, eta hau beste batzuen esku dago batez ere. Euskarak zentralitatea behar du, politika zuzenak behar ditu, eta laburbilduz, gaur egun gaztelerak duen estatus bera behar du Durangon, arlo guztietan.

Haur Literatur Aretoa: bidaia literarioa Durangaldetik zehar

Haur eta gazteak eskualdeko sortzaileekin gerturatuko dira euskal literaturaren mundura



Udazkenarekin batera, Durangaldeko ume eta gazteak euskal literaturaren mundura bidaiatu dira beste behin. Bidaia azaroan hasiko da Zornotzan, eta Durangoko Azoka aurretik bukatuko da Durangon. Aurretik maleta prestatzen gabiltza eta ondo bete dakargu: antzerkiak, erakusketa girotuak, sormen tailerrak, ipuin

antzeztuak, irakurgidak... Bidaian zehar denbora gelditu egingo da, eta bizipen, emozio eta kosmobisioak sortuko dira ume, gazte eta bide lagunengan. Haur eta gazteentzako euskal literatura urteetan aberastu egin da, eta idazle eta ilustratzaile eder ugari ditugu gurean. Sortzaileen lana plazara eta esku artera

hurreratzea da gure helburua, eta gerturatze horretan bidelagun ditugu antzerkigileak, idazleak, hezitzaileak, ume eta gazteak.

Abiatuko dugun bidaiara ez goaz bakarrik; lagun askok hartu dugu parte presaketetan, eta bakoitzak bere ekipajea dakar. Ostera honetan, Karrika antzerki taldekoek antzerki eta ipuin antzeztuak sortu dituzte propio haur eta gazteak agertokitik liluratzeko. Durangaldeko sortzaileek ere maleta bete dute, beraien esperientziatik abiatuz, sortze prozesuaren nondik norakoak azaldu eta askotan ohikoak diren beldur eta kezka identifikatu eta gainditzeko. Hezitzaileak urteko liburu berrien eta aurreko urteko gomen-dagarrien erakusketa intimoan irakurzaletasunari buruz arituko dira ume eta gazteekin, beraien gogoko gaiak landu eta liburu artean une gozo bat igarotzeko. Liburu erraldoiak ere josiko dituzte ikastetxeetan, gai baten bueltan ikasgelan taldeko lanean jardunaz. Horrez gain, irakurgida argitaratu dugu, argialetxeen laguntzarekin, parte hartzaile guztiei banandu eta etxean, familia giroan, literaturaren inguruan hitz egiteko tarte hartzera gonbidatzeko.

Garai ona da beraz, udazkena, bidaiatzeko, eta guk txartelak eta maletak prest ditugu, geltokira heldu eta bidelagunak gerturatzea besterik ez da falta.

Itzartuk gogotsu hasi du ikasturtea

Hilean behin ekintzak egiten hasi gara, urrian gaupasa egin dugu, eta izena emateko modua aldatu dugu.

Orain dela lau urte sortu zen Itzartu, Durangon gazteek duten aisialdi eskaintza faltari erantzuna emateko asmoz. Urte hauetan ekintza ugari egin ditugu eta Itzartutik hainbat hezitzaile eta gazte pasatu dira. Pasa den urtean hezitzaile berri mordoa animatu zen taldean parte hartzera eta denon artean aldaketa baten beharra zegoela ondorioztatu genuen. Horregatik, ikasturte honetan logo eta kartel berriarekin indarberrituta gatz bueltan. 10-14 urte arteko gazteei zuzendutako eskaintza egiten jarraitzen dugu. Urrian gaupasarekin hasi genuen ikasturtea, eta hilean behin ekintza bat burutuko dugu. Hurrengo hiru hiletako ekintzen datak finkatu ditugu jada, eta izena ematea martxan da. Proposamena Durangoko ikastetxe guztietako gazteengana heltzeko, ikastetxeetan aurkezpenak egin ditugu, eta, bestalde, sare sozialei indar berezia eman-

go diegu. Horrez gain, izena emateko modu berria pentsatu dugu. Familia askok eredu hobetzeko eskatu digute, eta izen-emate eredu berri hau planteatzen dugu:

- Datu base bat sortuko dugu Itzartuko ekintzetan parte hartu nahi dutenekin. Horretarako, Pinondora etorri behar da fitxa betetzera. Ikasturte osoan bete ahalko da fitxa hori.

- Behin datu basean sartuta, gazteek ekintzetan parte hartzeko ez dute fitxarik bete behar; baieztapenarekin nahikoa izango da. Horretarako, gaztea etor daiteke ekintzan parte hartuko duela esatera.

- Ekintza berezia bada (asteburu-pasa, egun sorginduak...), datu basean egon arren, fitxa bete behar da.



53.ean nobedadez beteko da Durangoko Azokako Saguganbara gunea

Aurreko urteetako arrakastari jarraituz, egitarau oparoa antolatu dugu Gerediaga Elkartearekin eta gainontzeko guneekin elkarlanean

Hilabete baino ez da falta Durangoko Azokak atea zabaltzeko, eta Saguganbara gunea prest daukagu 2018an haur eta gazte sorkuntzan izan den uztaren lekuko izateko. Abenduaren 5ean hasi eta 9an amaituko den edizioa nobedadez beteta dator. Sortzaileen topalekua eta familientzako harreman gunea, magia eta irudimenez beteko da beste urtebetetz; liburu eta CD aurkezpenak, literatur tailerrak, ipuin kontaketak, pailazoak, dantza saioak... izango dira besteak beste.

Goizeko 10:30ean hasi eta arratsaldeko 20:00ak arte, zabalik izango ditu atea Saguganbarak, eta egitarau jarraitua izango du bazkalorduko etena salbu. Irakurketa librerako tarte ere eskainiko du, areto handian batuko baititu 2018. urtean euskarazko Haur eta Gazte Literaturan argitaratu diren liburuak, eta Mondragon Unibertsitateak eta Galtzagorri Elkarteak egindako sailkapenaren arabera aurreko urteetako liburu gomendagarriak.

Negulekuak, neguko oporrak lagun giroan pasatzeko aukera paregabea

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra bitartean, txanda bitan antolatuko da aurtengo egonaldia

Neguko oporrak gero eta gertuago ikusten ditugu, eta aurtengoa ez dugu hutsik egingo. Abenduaren 26tik 28ra, eta urtarrilaren 2tik 4ra, 3 eguneko txanda bi prestatu ditugu neguko oporraldia lagun artean igarotzeko.

Azken urteetan egin dugunez, Ibaizabal Ikastolan burutuko dira egonaldiak, eta goizeko ordutegia izango du; goizeko 09:00etan batuko gara ikastolan eta 13:30a arte luzatuko da eguneko jarduna.

3-10 urte bitarteko (2015 eta 2008 urtean artean jaioak) ume eta gaztetxoei zuzendutako egitasmoa da Negulekuak. Umeen gaitasun eta beharretatik abiatuta, eskulanak, ipuin kontaketak, antzezlanak, sukaldaritza eta sormen tailerrak, jolasak... egiteko aukera egongo da besteak beste. Programazioa, hala ere, malgua izango da, eta egonaldian

zehar osatuko dugu umeen motibazio eta irrikak kontuan hartuta.

Izena aste batarako edo bietarako eman daiteke. Horretarako, Berbaroren bulegora etorri zaitezke azaroaren 19tik a b e n d u a r e n 14ra bitartean.



AGENDA

• Euskaraldia

Lokalaren ordutegia:

- Ostegunak, 18:00-20:30] eta larunabatak [12:00-14:30]

Formazio saioak:

- Azaroak 5, 19:00etan, Ahobizi tailerra
- Azaroak 12, 19:00etan, Belarriprest tailerra

11 egun euskaraz:

- Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, (eta handik aurrera ere bai!)

• Itzartu gazte taldea

- Azaroaren 18an: ekintza berezia
- Abenduaren 26tik 28ra: egun sorginduk

• Durangoko Azoka:

Abenduaren 5etik 9ra

• Urteko azken bertso saioa:

Abenduaren 30ean, Plateruenan.

Arrosa eta Arantza

Arrosa: Etorri berria, askorentzat ez euskalduna. Harri-garria bada ere, bezeroaren lehenengo hitza entzun barik, porruak bertakoak direla modu jatorrean esaten duena. Ez kasualitatez, ez behin edo birritan, ez hamaika egunetan bakarrik; ezagutu dudanetik, ahobizi txapa aldean eraman barik, argazkietan agertzea nahi ez duen ahobizia da, eta izango da. Harrotasun handiz alaba euskaldun alfabetatua dela esaten du. Goresgarria, idoloa.

Laurogeita nahiko urte ditu gizonak, euskara ikasten lau-urogei urterekin hasi zela esan digu. Laguntza eske etorri zaigu, Euskaraldian izena eman nahi du, ez ditu teknologia berriak erabiltzen. Belarripresta, goresgarria bera ere.

Gure denboran, orduen be, heu be gerra garaian,... Orduko kontuak, ordukoei euskara jatorrean entzutea gozamen da, goresgarriak eurek ere. Ordutik 11 egun igaro dira!. Eutsiko diogu.

Arantza:

Urria: Sanfaustoak, herriko jaiak.

San Fausto jaietan osteratxo egin eta... lehenengo zaplada, barrakak, musika, megafonia eta karteldegia. Kale ikuskizuna, elefante erraldoiak, hanka palo ikusgarriak Santa Anako plaza erdian erdera hutsean, hartzaileak umeak. Kaleko hormetan "por los derechos de los animales Manifestación contra la sokamuturra...". Jai eredu honek ez gaitu ordezkatzen.

Abendua: Durangoko Azoka DA!. Herria euskalduntzen DA

Azokako ate irekia orduko, kaleko hormetan kartelak euskaraz, tabernetako musika eta menua euskalduntzen dira, 5 egunetan euskal hitzunik bihurtzen gara, euskal kontsumitzaileak, euskaldunenak. Itxurakeria honek ez gaitu euskalduntzen.

Jakitetik, egitera. Egitetik izatera.